



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Robadors

Berezia da Robadors kalea. Bartzelonako Raval auzoko bihotzean, carrer de l'Hospital eta carrer Sant Pau lotzen dituen hustubide baten

modukoa da. Usain bizia, taberna zu-
loak ezker-eskuin, prostituzioa age-
rian. Sei solairuko etxeak baina hiru
metro zabal, nahiz eta kalearen zati
handi bat zabaldu egin zuten Katalu-
niako Filmoteka eraiki eta espazio pu-
bliko global bat irabazteko. *Sventra-
mento* esaten zaio hiri-eremu
kontsolidatu zati bat eraitsi eta haren
ordez espazio zabal bat sortzeari. Ego-
ki esan ere, *sventramento*, italieraz,
pertsona edo animalia
bati erraiak ateratzearen
ekintza delako. Hiri-be-
rritze proiektu honi es-
ker ingurua atseginago
egin, etxebizitzaren pre-
zioa apur bat igo eta pro-
fil ezberdineko bizilagun-
ak iritsi ziren kalera.
Tartean, ni neu. Gentrifi-
kazioa, lehenengo per-
tsonan.

Tokiak aldatu egiten
dira ezinbestean, bortiz-
ki batzuetan, pixkanaka
bestetan, eta mikroma-
txismoaz hitz egiten du-
gun modu berean alda-
keta urbano horien
sintoma edo eragile di-
ren hainbat mikroekin-
tza edo mikroegoeraz
ere hitz egin genezake.

2012ko maiatzaren
25a, ostirala, gaueko or-
du txikiak. Kaleko harra-
botsak ez dit lorik har-
tzen uzten eta leihora
hurbildu naiz. Kamioi
bat ikusten dut kalean
aparkatua; harritu egin

naiz, ez baita ohikoa tamaina horreta-
ko ibilgailurik etxepean ikustea. Nor-
bait ikusten dut kamioiaren atoirra
hurbiltzen, atzetik, eta barrura egin
du salto. Segundo gutxiren buruan
atera da eskuetan zerbait duela, baina
ez naiz gai zer den zehatz ikusteko.
Pixkanaka, inurriak apurretara nola,
bat, bi, hiru pertsona, gero lau, bost,
sei, hurbiltzen dira kamioira gauza
bera egiteko: atoirra salto egin eta ka-
xa bat, eskuoihal bat, arropa edo dena
delakoa eskuetan dutela atera eta alde
egin dute.

**Poliziari hots egitea otu zait eta ha-
la egin dut. Kamioi baten karga la-**

**purtzen ari dira nire muturren au-
rrean eta kamioilari gizajoaren la-
rruan jarri naiz.** Minutu gutxiren bu-
ruan dator polizia bikote
bat –azkarrak dira oso auzo honetan–,
kamioiaren kabinara hurbildu dira
eta lehenengo sorpresa: gidaria ber-
tan dago. Gidaria barruan dela lapu-
rretan egitea ez da hipotesi sinesga-
rria eta *plot twist*-a deskubritu nahi
dut.

Segundo gutxiko elkarrizketa baten
ostean badoaz poliziak, kamioiaren
atzealdean jendea pilatzen den bitar-
tean. Begirada fintzeko esfortzua egin
dut, jendeak kamioiko atoitik atera-
tzen duen hori zer demontre den jaki-
teko. Ulertu dut bat-ba-
tean: maindireak dira,
izara garbiak, eta kontu-
ratzen naiz ezerk gutxik
irudika dezakeela hobe-
to Robadors kalearen
errealitatea maindire
garbien logistikak baino.
Aurreiritzi dezente dut
putazaleen inguruan,
baina izara zikinetan
txortan egiteko desira ez
da horietako bat.

**Alejandro Gonzalez Iñar-
rituk Bartzelonaren
erraiak erakutsi zizki-
gun «Biutiful» izeneko
«sventramento» zine-
matografikoan.** Bartze-
lona turistikoaren B al-
dearen miseriak, A alde
kosmopolita horren oi-
narri ezinbestekoa; ez-
kutuan normalean bai-
na gentrifikatzaileari
parez pare agertu ahal
zaiona gutxien espero
duenean, udaberriko
egun epel bateko ordu
txikietan. •



ANDER GORTAZAR BALERDI